Esenin, arima eslaviarra ulertu zuen azken poeta

Roberto Serrano
Juan Ramon Makuso (poeta aholkularia)

Esenin - Sergei Alexandrovitx (1895-1925), errusiar poeta. Hasierako poema bildumetatik ("*Radunitsa*" edo "*Domu Santu eguna*" 1916; "*Orduen Liburua*", 1918) poeta fina zela utzi zuen agerian: paisaia psikologiko sakoneko maisua, Errusiako nekazarien abeslari, hizkuntza herrikoia eta herriaren arimaren jakitun. 1919-1923 urteetan imaginisten taldean sartu zen. Poeta honen ikuspegi tragikoa, arimaren adierazpenaren nahasteak ondoko poemetan azaleratu ziren: "*Zaldien ontziak*" (1920), "*Moskuko txiribogak*" (1924), "*Gizon beltza*" (1925). Bakuko (Azerbaijan) komisarioei emandako "*Hogeita seien balada*" poeman (1924), "*Errusia sobietarra*" bilduman (1925), eta "*Anna Snegina*" poeman (1925) Esenin saiatu zen "*Errusia haserre komuna*" bereganatzen, nahiz eta bere burua oraindik "*desagertzera doan Errusiarreko*" poetatzat, "*urrezko enbordun txabolako*" poetatzat hartu.

Haurtzaroa. Gaztaroa

Nekazarien familia batean jaio zen, Konstantinovo herrian (Ryazan, Moskutik 270 kilometrora). Haurra zenean aita hiriburura joan zen lanera, eta osabaren familiarekin utzi zuten. Eseninen lehenengo sentimenduen artean bereizten dira itsu alderrai baten abestietan jaso zituen poema espiritualak, eta amamaren ipuinak. 1909an amaitu zuen lau urteko ikasketa Konstantinoveko ikastetxean, nota onarekin. Spas-Klepikoveko eskolan jarraitu zuen ikaskuntza (1909-12); handik eskola-maisua graduarekin atera zen. 1912ko udan Esenin Moskura joan zen, garai batean harategian egin zuen lan, aita morroi lanean zegoen leku berean. Aitarekin eztabaida sutsua izan ostean denda hura utzi zuen, argitaletxe batean sartu zen, gero Sytinen tipografian; garai honetan langileen aldeko iraultzaz zaletu

zen eta polizia haren atzetik zebilkion. Honekin batera (1913-15) Eseninek Shaniavki Unibertsitateko historia eta filosofia sailean ikasten du.

Estreinaldi literarioa. Arrakasta

Haurtzaroan osatu zituen olerkiekin (orokorrean A. Koltsov, I. Nikitin, S. Drojjinen estilokoak) Eseninek kideak biltzen ditu "Surikoven literatura eta musika elkartean", 1912. urtean sartu zen olerkizaleen talde honetan. 1914an Moskuko umeentzako aldizkarietan argitaratzen dizkiote lehen poemak (estreinaldiko olerkia "Urkia" izan zen).

1915eko udaberrian Esenin Petrogradora doa (geroago Leningrado, egun San Petersburg), bertan ezagutu zituen Alexander Blok, S. Gorodetski, A. Remizov, N. Gumilev eta beste, N. Klueven lagun mina bihurtzen da eta honek eragin handia egin zion. Elkarrekiko ekitaldiek, poemak eta kopla herrikoiak nahasirik, arrakasta handia izan zuten. "Nekazari" moduan eta estilo "herrikoian" agertzen ziren eszenatokian. Esenin ikusleen aurrean, errubio kizkurduna, alkandora zakar batez eta ahuntz-larruko bota altuekin ateratzen zen.

Soldaduska

1916ko lehen erdian zerbitzu militarra betetzera deitzen dute, baina adiskideen laguntza dela medio ("berorren gorentasunaren erabakiz") erizain postua ematen diote armadako 143. Tsarskoselski tren-ospitalean; honi esker etenik gabe jarrai dezake literatur elkarteetan parte hartzen, mezenasen harreretan eta kontzertuetan.

Lanean ari zen gaixotegian antolatu zen kontzertu batean (Enperatriza eta Printzesen erruki-erizainak ere hortxe zeuden) Tsarraren familia ezagutu zuen. Orduan, Kluevekin batera eszenara atera zen, antzinako errusiar jantziekin, Vasnetsoven diseinuarekin eginak. Horren ostean Tsarskoe Selo herrira eta Moskura ere gonbidatzen dituzte, Elizabet dukesa handiarengana.

1916ko maiatzean, errege-erreginarekin batera, tren-ospitaleko erizain moduan, Evpatoriara (Itsaso Beltza) doa. Hura izan zen Nikolas IIa Krimeara joan zen azken aldia.

"Radunitsa" *(Domu Santu eguna)*

Kritikak adore handiz hartu zuen Eseninen lehen poema bilduma, "*Radunitsa*" (1916). Bertan korronte freskoa aurkitu zuten, gaztearen naturaltasuna azpimarratu zuten, egilearen jatorrizko gustua. "Radunitsaren" olerkietan eta geroko poema bildumetan ("*Urdinxka*", "*Itxuraldaketa*", "*Orduen Liburua*", guztiak 1918koak eta beste) jadanik gauzatzen da Eseninen "antropomorfismo" berezia: animaliak, landareak, naturaren fenomenoak eta beste, gizaki bihurtzen dira poetaren esku, jendearekin bat egiten dute, sustraitzen dira, eta naturarekin bat eginez, mundua harmonikoa da, betea, ederra. Nekazarien jakindurian, sinbolismo paganoan eta estilistika folklorikoan jaiotzen dira Eseninen Errusiako naturaren koadro fin apainduak, dena tonu honetan: labea pizten da, txakurrak kukubilkatzen dira, belar moztu gabea eta aintzirak, segalarien harrabotsa eta abereen zurrunga

poetaren sentimenduen jomuga onbera, ia erlijiosoa bihurtzen da ("*Egunsenti gorriminean egiten dut otoitz, errekastoan garbitzen dut neure burua*").

Iraultza

1918ko hasieran Esenin Moskun dago. Adore handiz agurtzen du iraultza, zenbait poema labur sortzen ditu pil-pilean dagoen giro honetan, ("*Jordaniako usoa*", "*Inonia*", "*Zeruko danbor-jolea*", guztiak 1918an, eta beste), alaitasunez beterik, bizitzan "aldaketa" sakona antzemanez. Olerkitxo hauetan jainkorik gabeko jarrera nahasten da jakinduria biblikoaz, gertaeren esanahia eta maila adierazte aldera. Esenin, errealitate berriari eta honen heroiak goratu nahian, garai berriarekin bat egiten saiatu zen ("*Kantata*", 1919). Beranduago idatzi zituen honako hauek: "*Martxa handiaren abestia*", 1924; "*Lurreko kapitaina*", 1925, eta beste). "*Nora eramaten gaitu gertaeren patuak*" hausnarketa eginez, poetak historiari dei egiten dio ("*Pugatxov*" poema dramatikoa, 1921).

Imaginismoa

Irudigintza arloko ikerketek hurbildu arazi zuten Esenin A. Mariengof, V. Shershenevitx eta R. Ivnevengana. 1919ko hasieran imaginisten taldea osatu zuten; Esenin imaginisten "Pegasoren ukuilua" kafetegiko bazkide ohia bihurtzen da, Moskuko Nikitaren Atarian. Hala ere, poeta ez zetorren bat formari "edukiaren hautsa" kentzeko ahaleginarekin. Haren interes estetikoak maila herrikoi patriarkalari zegozkion, arima herrikoiaren sormenari, sustraiko forma artistikoari ("*Mariaren giltzak*" tratatua, 1919). 1921. urtean Eseninek inprentara bidaltzen ditu "*Bufoiaren keinuak keinu hutsari esker*", "*Kideak*", imaginisten kontrako kritikak. Astiro-astiro bere lirikatik ezabatzen ditu metafora korapilatsuak.

"Moskuko txiribogak"

20ko hamarkadaren hasieran, Eseninen olerkian agertzen da "*ekaitzak pitzaturiko egunerokotasunaren*" gaia (1920. urtean banandu zen Z. Reichekin, ia hiru urteko bizikidetzaren ondoren), edarian murgildu zen, tristura tarteak txandakatuz. Olerkaria lotsagabe, liskarzale, mozkor bihurtzen da, arimak odola dario, "*saizulo batetik bestera*" mugitzen da errenka, inguruan "*zarama arrotz eta barrezalea*" biltzen da ("*Bilauaren aitormena*", 1921; "*Moskuko txiribogak*", 1924, bildumetatik).

Isedora

Eseninen bizitzan gertaera garrantzitsua izan zen amerikar dantzaria ezagutu zuenean, Isedora Duncan (1921eko udazkenean); urte erdi baten buruan ezkondu ziren. Elkarrekin Europan zehar ibili ziren (Alemania, Belgika, Frantzia, Italia) eta Iparramerikan (1922ko maiatzetik 1923ko abuztura arte), etengabeko liskar sonatuekin, Isedora eta Eseninen ateraldiek harritzen zuten mundu guztia, elkarrenganako "ulertze" eza agerian uzten zuten, areago haien artean, literalki, hizkuntza komunik ez zegoenean (Eseninek errusieraz baino ez zuen hitz egiten, Isedorak zenbait hitz ikasi zituen, ez besterik). Errusiara itzuli zirenean banandu

ziren. Isedora lau urte beranduago hil zen Nizan, auto istripu batean. Autotik atera zela, bufanda atean trabatu zitzaion eta autoaren abiadak itoarazi eta kolpatu zuen.

Azken urteetako poemak

Esenin pozik itzuli zen aberrira, barruan berriztatu zeneko sentimenduaz, "*Sobiet Batasun handian… kantari eta hiritar izateko gogoaz*". Garai honetan (1923-25) sortzen ditu bere bertsorik onenak: "*Urrezko basoak hitz egin du…*" poema, "*Amari gutuna*", "*Orain poliki-poliki joango gara…*", "*Pertsiako gaiak*" zikloa, "*Anna Snegina*" olerkia eta beste.

Haren olerkian, lehen bezala, leku nagusia aberriaren gaiak betetzen du, orain kutsu dramatikoa bereganatzen duelarik. Eseninen Errusiako behin mundu harmonikoa izandakoa bikoizten da: "*Errusia sobietarra*", "*Desagertzera doan Errusia*". Jadanik "*Berrogei eguneko dolua*" (1920) poeman nabarmentzen zen gaia, berria eta zaharraren arteko lehia, ("*Zurda gorriko moxala*" eta "*Burdinazko trenaren hatzaparretan*"), azken urteetako bertsoetan garatzen eta bilakatzen da: bizitza berriaren elementuak finkatzen ditu, "*harrizkoa eta altzairuzkoari*" ongietorria ematen die, Esenin gero eta gehiago sentitzen da "*urrezko enbordun txabolako*" abeslari, haren olerkigintza "*hemen jada ez dute maite*" ("*Errusia sobietarra*", "*Herri sobietarra*" bildumetatik, biak 1925ekoak). Emozioa nagusi den garai honetako olerkigintza udazkeneko paisaia bihurtzen da, ondorioak ateratzeko unea, agurra.

Amaiera tragikoa

Azkenetariko lana izan zen "*Bilauen herrialdea*" poema; bertan Eseninek larrutzen du botere sobietarra. Horren ostean haren kontrako kanpaina hasi zen egunkarietan; hordikeriaz, iskanbilaz eta abarrez salatzen zuten. Bizitzako azken bi urteak etengabeko hara-honako mugimenduan igaro zituen: epaitegien jazarpenetik ihesean hiru aldiz joan zen Kaukasora, hainbat aldiz Leningradora, zazpi aldiz Konstantinovora. Era berean, bizitza pertsonalari hasiera berria ematen saiatu zen, S. Tolstayarekin batera (Lev Tolstoiren loba), baina honek ere ez zuen amaiera onik izan.

1925eko azaroaren amaieran, atxiloketaren mehatxupean, zoroetxe batean sartu zuten. Sofia Tolstayak P. Gannushkin katedratikoarekin hitzartu zuen poeta Moskuko Unibertsitateko klinika pribatuan sartuko zutela, gela propioan, hortxe Eseninek literatur lanak sortzen jarraitzeko aukera izan zezan.

GPU (gero KGB izango zena) eta poliziako kideek leku guztietan arakatu zuten alferrik; ezin zuten poeta aurkitu. Klinikan sartu zutela pertsona gutxik zekiten, baina norbaitek salatu zuen azkenean. Azaroaren 28an agente sekretuak oldarrean sartu ziren klinikako zuzendariaren bulegoan, P. Gannushkin, eta Esenin eman ziezaien exijitu zioten, baina honek ez zuen saldu bere herrikidea. Klinika zaintzapean jarri zuten. Momentu egokia aprobetxatuz, Eseninek sendatze prozesua moztu zuen (klinikako bisitarien artean alde egin zuen) eta abenduaren 23an Leningradora joan zen.

Abenduaren 28ko gauean, "Angleterre" hoteleko gela batean, urkatuta agertzen da. Batzuen ustez, bere buruaz beste egin zuen. Beste bertsioen arabera, zerbitzu sekretuek erail zuten. Heriotza aurreko gauean agur poema idatzi zuen:

До свиданья, друг мой, до свиданья. Милый мой, ты у меня в груди. Предназначенное расставанье Обещает встречу впереди. До свиданья, друг мой, без руки, без слова, Не грусти и не печаль бровей, - В этой жизни умирать не ново, Но и жить, конечно, не новей.	*Ikusi arte, lagun,* *ikusi arte.* *Adixkide, nire bihotzean zaude.* *Agindutako aldentzeak* *etorkizuneko elkartzea dakar.* *Ikusi arte, lagun,* *eskurik gabe,* *hitzik gabe,* *ez izan triste, ez jaitsi* *bekainak,* *bizitza honetan heriotza ez da* *gauza berria,* *bizitzea, jakina, ez da* *berriagoa.*

Eseninek poema hau eman zion Leningradoko lagun bati, Wolf Erlich poetari. Haren oroimenean hala izan zen: «Esenin mahairantz makurtu zen, koadernotik orri bat kendu zuen, urrutitik erakutsi zidan: poema bat zen. Zera esan zuen, orria lau aldiz tolestuta eta nire jakako sakelan jarrita: "Zuretzat". Ustinovak (Erlich-en neska-laguna) irakurri nahi izan zuen. "Ez, itxoin, bakarrik zaudenean, orduan irakurri…" Agur esan genion elkarri. Nevski kaletik itzuli nintzen berriro, paper-zorroa ahaztu nuen eta. Esenin mahaian zegoen, lasai, pijamarik gabe, soingainekoa gainean jarrita, poema zaharrak irakurtzen ari zen. Mahaian karpeta bat zabalik zeukan. Bigarren aldiz esan genion agur».

Hau izan zen Esenin bizirik ikusi zuten azken aldia. Hurrengo goizean gorpua zintzilik aurkituko zuten; 1925eko abenduaren 28a zen, gurean "inozenteen eguna", Errusian egun arrunta.

Eseninen poesia ez zen arrunta, hain egiazko gertatzen zen eta. Gorkik idatzi zuen bezala, "Sergei Esenin ez da gizona, organoa baizik, naturak poesiarako bereziki sortua". Urriko iraultzak Esenini indar berebizikoa eman zion. Iraultzarik gabe Esenin izango zatekeen "*zelaietako tristuraren*" abeslari hu-

tsa; haren albokak ez zukeen hain ozen eta hain argi joko. Eseninek, bere poemetan udaberriko askatasunaren alaitasuna, etorkizunerako haustura adierazten zituen, garai aldaketaren kolpatze tragikoa. Bere poemetan kontrajartzen ziren indar etsaiak, askok atzera erakartzen zuen, "*Egurrezko Errusiarantz*", antzinako patriarka-arorantz ("*Herriko azken poeta naiz*"), baina poetaren lerro nagusiak, zekarren zamari jaramonik eginez, herriaren esperantzari begiratzen zion. "*Harri eta altzairuaren bidez ikusten dut nik herriaren indarra*", –esan zuen gizonak 1925eko poemarik sendoenetako batean. Eseninen orrialderik onenek argi islatzen dute errusiar gizakiaren arimaren edertasuna. Lirikotasun fina, errusiar ikuspegiaren aztia, herriko koloreak, soinuak eta usainak jasotzeko zentzumen zorrotza, Esenin poeta handi, ausart eta borobila zen. Haren ahapaldi mota berriak, freskoak, beti dira benetako aurkikuntza artistikoa. Eseninen ideala Pushkin poeta handiaren erraztasun eta gardentasuna zen, eta ideal hau ez zuen abandonatu biziaren azken urteetara arte.

Eseninek iraultzari kantatu zion, baina batzuetan ez zuen ulertzen "*nora garamatzan patuaren gertakizunak*".

Hala, Eseninen poemek ez dirudite lumaz idatziak, Errusiako naturak berak belarrira diktatuak baizik. Poemak, folklorean iradokiak, folklore bihurtzen ziren pixkanaka. Bere burua errusiar lurraren puskatzat zeukan, "*zuhaitzak hosto ilunak askatzen dituen bezala, honelaxe askatzen ditut nik hitz ilunak*". Sorterriko lurrarekiko sentimendua izardun unibertso mugagabearekiko erakarpen bihurtu zen, "*txakurraren begiak saltoka ari ziren urrezko izarretatik elurrera*".

1925eko abenduaren 31n Moskuko Vagankovoko hilerrian lurperatu zuten.

Сергей Есенин

Исповедь хулигана

Не каждый умеет петь,
Не каждому дано яблоком
Падать к чужим ногам.

Сие есть самая великая исповедь,
Которой исповедуется хулиган.

Я нарочно иду нечесаным,
С головой, как керосиновая лампа, на плечах.
Ваших душ безлиственную осень
Мне нравится в потемках освещать.
Мне нравится, когда каменья брани
Летят в меня, как град рыгающей грозы,
Я только крепче жму тогда руками
Моих волос качнувшийся пузырь.

Так хорошо тогда мне вспоминать
Заросший пруд и хриплый звон ольхи,
Что где-то у меня живут отец и мать,
Которым наплевать на все мои стихи,
Которым дорог я, как поле и как плоть,
Как дождик, что весной взрыхляет зеленя.
Они бы вилами пришли вас заколоть
За каждый крик ваш, брошенный в меня.

Sergei Esenin

Bilauaren aitorpena

Edozeinek ez daki abesten,
edozeini ez dagokio sagar moduan
beste baten hanketan erortzea.

Horixe da bilauak egin lezakeen
aitorpenik handiena.

Apropos noa orraztu gabe,
burua, sorbaldetan
keroseno argia bezala.
Hostorik gabeko udazkenean gustatzen zait
zuen arimak ilunpetan argitzea.
Gustatzen zait, harrizko irainak niregana hegan datozenean,
ekaitzaren kazkabar korrokaria moduan,
putzuki moduko nire ileak
eskuez sendoago estutu baino ez dut egiten.

Orduan hain gustura gogoratzen dut,
putzu handitua eta haltzaren hots marrantatua,
nonbait nire gurasoak bizirik daudela,
nire poema guztiez axolarik ez dutela,
maite nautela, zelaia eta fruitua bezala,
udaberrian belartza estaltzen duen euria bezala.
Sardeaz etorriko lirateke zuek sastatzera
niri jaurti didazuen oihu guztiengatik.

Бедные, бедные крестьяне!
Вы, наверно, стали некрасивыми,
Так же боитесь бога и болотных недр.
О, если б вы понимали,
Что сын ваш в России
Самый лучший поэт!
Вы ль за жизнь его сердцем не индевели,
Когда босые ноги он в лужах осенних макал?
А теперь он ходит в цилиндре
И лакированных башмаках.

Но живет в нем задор прежней вправки
Деревенского озорника.
Каждой корове с вывески мясной лавки
Он кланяется издалека.
И, встречаясь с извозчиками на площади,
Вспоминая запах навоза с родных полей,
Он готов нести хвост каждой лошади,
Как венчального платья шлейф.

Я люблю родину.
Я очень люблю родину!
Хоть есть в ней грусти ивовая ржавь.
Приятны мне свиней испачканные морды
И в тишине ночной звенящий голос жаб.
Я нежно болен вспоминаньем детства,
Апрельских вечеров мне снится хмарь и сырь.
Как будто бы на корточки погреться
Присел наш клен перед костром зари.
О, сколько я на нем яиц из гнезд вороньих,
Карабкаясь по сучьям, воровал!
Все тот же ль он теперь, с верхушкою зеленой?
По-прежнему ль крепка его кора?

Nekazari gaixoak!
Zuek, ziur aski, itsusi bihurtu zarete,
izan zaitezte jainkoaren eta lur paduratsuen beldur.
Oh, jakingo bazenute,
zuen semea Errusiako
poetarik onena dela!
Zuen bihotza ez litzateke hoztuko haren osasunagatik,
udazkeneko putzuetan oinutsik alderrai zebilenean?
Eta orain txisteraz jantzita dabil
eta oinetako distiratsuez.

Baina berean bizirik dago herriko ume bihurriaren lehengo adorea.
Harategiko txartela daraman edozein behiri agur egiten dio urrutitik.
Eta, plazan gurdizainak topatuta,
sorterriko simaurraren usaina gogoratuta,
zaldi guztien isatsa eramateko prest dago,
ezkontza jantziaren isatsa bezala.

Aberria maite dut.
Oso maite dut aberria!
Bertan zumearen herdoila tristea izan arren.
Atsegin ditut txerrien mutur zikinak
eta gaueko isilunean durunditzen duen apoaren ahotsa.
Goxoki gaixotzen naiz haurtzaroa gogoratuz,
apirileko arratsaldeetan amets egiten dut laino eta hezetasunaz.
Lau hankatan berotzera etorri balitz bezala
guregana astigarra, iluntzeko sutegiaren aurrean.
Oh, zenbat arrautza lapurtu nituen bertatik,
lapurtzen nituen! adarretatik igota.
Hura bera al da, burua berdeduna?
Lehen bezalako azal gogorra al dauka?

А ты, любимый,
Верный пегий пес?!
От старости ты стал визглив и слеп
И бродишь по двору, влача обвисший хвост,
Забыв чутьем, где двери и где хлев.
О, как мне дороги все те проказы,
Когда, у матери стянув краюху хлеба,
Кусали мы с тобой ее по разу,
Ни капельки друг другом не погребав.

Я все такой же.
Сердцем я все такой же.
Как васильки во ржи, цветут в лице глаза.
Стеля стихов злаченые рогожи,
Мне хочется вам нежное сказать.

Спокойной ночи!
Всем вам спокойной ночи!
Отзвенела по траве сумерек зари коса…
Мне сегодня хочется очень
Из окошка луну…

Синий свет, свет такой синий!
В эту синь даже умереть не жаль.
Ну так что ж, что кажусь я циником,
Прицепившим к заднице фонарь!
Старый, добрый, заезженный Пегас,
Мне ль нужна твоя мягкая рысь?
Я пришел, как суровый мастер,
Воспеть и прославить крыс.
Башка моя, словно август,
Льется бурливых волос вином.

Я хочу быть желтым парусом
В ту страну, куда мы плывем.

Eta zu, txakur maitea,
leiala eta onbera!
Zahartzaroan karrankari eta itsu geratu zara
eta patioan alderrai zabiltza, herrestan isats apala,
usnaz ahaztuta, non dagoen atea eta non ogia.
Oh, nola maite ditudan bihurrikeria guzti haiek,
amari ogi puska kenduta,
biok koska egiten genionean batera,
behin ere elkarri atzamarka egin gabe.

Ni berbera naiz.
Bihotz bera daukat.
Lore urdinak buztinean bezala, aurpegian begiak loratzen zaizkit.
Poemetako alfonbra gaiztoa luzatuta,
zerbait goxoa esateko gogoa daukat.

Gabon!
Guztioi gabon!
Ilunabarreko segak durunditzen du belarrean…
Biziki nahi dut gaur
leihotik ilargia…

Argi urdina, argi hain urdina!
Urdin honetan hiltzeak ere ez dit penarik ematen.
Beno, hala ziniko ematen dut,
Argia ipurdian lotuta!
Pegaso zahar, onbera, ziztrin,
nik behar ote dut zure zapasalto biguna?
Aditu zorrotz bezala etorri naiz,
Arratoiak goratu eta laudatzera.
Nire gaina, abuztua bezala,
Ardoaz ile zalapartatsuetan urtzen da.

Bela horia izan nahi dut
nabigatzen ari garen herri hartan.

Поэт

Он бледен. Мыслит страшный путь.
В его душе живут виденья.
Ударом жизни вбита грудь,
А щеки выпили сомненья.

Клоками сбиты волоса,
Чело высокое в морщинах,
Но ясных грез его краса
Горит в продуманных картинах.

Сидит он в тесном чердаке,
Огарок свечки режет взоры,
А карандаш в его руке
Ведет с ним тайно разговоры.

Он пишет песню грустных дум,
Он ловит сердцем тень былого.
И этот шум, душевный шум…
Снесет он завтра за целковый.

1910-1912

Poeta

Zurbil dago. Bide izugarriaz hausnartzen ari da.
Bere ariman irudipenak bizi dira.
Bularra astinduta dago bizitzaren kolpeaz.
Eta masailak edan dituzte zalantzek.

Ilea xerlotan bilduta,
bekoki garaia zimurretan,
baina amets argien edertasun berea
sutan dago irudi asmatuetan.

Ganbara estuan dago,
kandelaren garrak ikusmena itsutzen dio,
eta bere eskuko arkatza
sekretuki solasean ari da berarekin.

Pentsamendu ilunen kantua idazten du,
Iraganeko itzala harrapatzen du bihotzez.
Eta zarata hura, gogoaren zarata…
Bihar emango du errublo baten truke.

1910-1912

X x x

Скупались звезды в невидимом бреде.
Жутко и страшно проснувшейся бредне.
Пьяно кружуся я в роще помятой,
Хочется звезды рукою помяти.
Блестятся гусли веселого лада,
В озере пенистом моется лада.
Груди упруги, как сочные дули,
Ластится к вихрям, чтоб в кости ей дули.
Тает как радуга, зорька вечерня,
С тихою радостью в сердце вечерня.

1916

X x x

Izarrak bainatu ziren sukar-amets ezkutuan.
Sukar-ametsean krudel eta beldurrez esnatuta.
Mozkor biraka ari naiz baso zimurtuan,
izarrak eskuz zimurtu nahi ditut.
Akorde alaidun gusliek egiten dute distira.
Akordeak bustitzen dira aintzira apartsuan.
Bular malguek, eguzkiak bezala jotzen zuten,
zirimola ferekatzen zuten, hezurretan jo zezan.
Ortzadarra bezala urtzen da arratsaldeko argia,
arratsaldeko bihotzaren pozgarri isila.

1916

X x x

Вот уж вечер. Роса
Блестит на крапиве.
Я стою у дороги,
Прислонившись к иве.

От луны свет большой
Прямо на нашу крышу.
Где-то песнь соловья
Вдалеке я слышу.

Хорошо и тепло,
Как зимой у печки.
И березы стоят,
Как большие свечки.

И вдали за рекой,
Видно, за опушкой,
Сонный сторож стучит
Мертвой колотушкой.

1910

Xxx

Hona hemen arratsa. Ihintzak
Distira egiten du asunean.
Bide ertzean nago zutik,
zumerantz makurtuta.

Ilargitik argi handia dator
Zuzen gure teilatura.
Nonbait urretxindorraren kantua
entzuten dut urrutian.

Gustura eta epel,
neguan berogailu ondoan bezala.
Eta urkiak tente,
kandela handiak bezala.

Eta urrutian, errekaren bestaldean,
Ikusgai, baso hegalean,
jagole logaleak jotzen du
karraka hila.

1910

X x x

Поет зима - аукает,
Мохнатый лес баюкает
Стозвоном сосняка.
Кругом с тоской глубокою
Плывут в страну далекую
Седые облака.

А по двору метелица
Ковром шелковым стелется,
Но больно холодна.
Воробышки игривые,
Как детки сиротливые,
Прижались у окна.

Озябли пташки малые,
Голодные, усталые,
И жмутся поплотней.
А вьюга с ревом бешеным
Стучит по ставням свешенным
И злится все сильней.

И дремлют пташки нежные
Под эти вихри снежные
У мерзлого окна.
И снится им прекрасная,
В улыбках солнца ясная
Красавица весна.

1910

Xxx

Neguak abesten, ulu egiten du,
Baso iletsua kulunkatzen da
pinudiaren hotsaz.
Biraka tristura sakonean
urrutiko herrialdera hegan egiten dute
laino urdinek.

Eta patioan elur ekaitza
zetazko alfonbra bezala luzatzen da,
baina sano hotza.
Txolarre jostariak,
umezurtzak bezala,
leihora hurbiltzen dira.

Txoritxoak hotzak daude,
gose, nekatuta,
eta areago hurbiltzen dira.
Eta ekaitzak orro basatiaz
Leiho-tapa argiak jotzen ditu
eta areago haserretzen da.

Eta txoritxo goxoak lo-kuluxkan daude
elur-zirimola honen menpean
leiho izoztuan.
Eta amets egiten dute,
irribarrez eguzkiak argitutako
udaberri ederrarekin.

1910

Поэтам грузии

Поэты Грузии!
Я ныне вспомнил вас.
Приятный вечер вам,
Хороший, добрый час!

Товарищи по чувствам,
По перу,
Словесных рек кипение
И шорох,
Я вас люблю,
Как шумную Куру,
Люблю в пирах и в разговорах.

Я — северный ваш друг
И брат!
Поэты — все единой крови.
И сам я тоже азиат
В поступках, в помыслах
И слове.

И потому в чужой
Стране
Вы близки
И приятны мне.

Века всё смелют,
Дни пройдут,
Людская речь
В один язык сольется.
Историк, сочиняя труд,
Над нашей рознью улыбнется.

Он скажет:
В пропасти времен
Есть изысканья и приметы…
Дралися сонмища племен,
Зато не ссорились поэты.

Свидетельствует
Вещий знак:
Поэт поэту
Есть кунак.

Самодержавный
Русский гнет
Сжимал все лучшее за горло,
Его мы кончили —
И вот
Свобода крылья распростерла.

1924

Georgiako poetei

Georgiako poetok!
Oraintxe gogoratu zaituztet.
Arratsalde on,
Uneoro on!

Bihozkideak,
Lumakideak,
Hitz jario irakina,
Eta berbotsa,
Maite zaituztet,
Mtkvari erreka bezalaxe,
Maite zaituztet luma eta solasaldietan.

Iparraldeko zuen laguna naiz
Eta anaia!
Poetak odol berekoak dira.
Neu ere ekialdekoa naiz
Portaeran, pentsaeran
Eta hitzetan.

Eta horregatik arrotza natzaio
Herrialdeari.
Zuek hurbilak
Eta atseginak zatzaizkidate.

Mendeak ehotzen dira,
Egunak igaro,
Gizakiaren hizkerak
Hizkuntza batean biltzen dira.
Historiagileak, lana burutuz,
Irribarre egingo die gure tirabirei.

Esango du:
Denboraren amildegian
Badaude ikerketak eta ikasgaiak…
Leinu ugarik egin zuen borroka,
Hala ere poetek ez zuten eztabaidatu.

Gauzen izaera
Honen lekuko:
Poeta poetari
Adiskide zaio.

Errusiar potentzia
Usteltzen da.
Eztarritik hoberena atera zaio,
Guk hil dugu
Eta horra
Askatasunak hegoak zabaldu ditu.

Esenin, el último poeta que comprendió el alma eslava

Esenin, Sergei Alexándorvich, poeta ruso de la primera mitad del siglo XX (1895-1925), cantó al pueblo llano de su país, a sus paisajes, a su lenguaje, a su alma popular.

Nació en Konstantinovo, en el seno de una familia campesina. Ya en su juventud destacó su don para la poesía. Estudió en Moscú y participó activamente del ambiente revolucionario de su época. Cuando la revolución soviética triunfó, la recibió con entusiasmo. Desde la primera edición de sus poesías tuvo mucho éxito entre sus coetáneos, se relacionó con la elite de la poesía contemporánea rusa, y fue miembro del grupo de los "imaginistas".

Contrajo matrimonio con la artista y bailarina americana Isadora Duncan, con quien mantuvo una relación tormentosa desde sus comienzos. Aunque ella no hablaba ruso ni él tampoco inglés, eso no fue obstáculo para que convivieran durante una larga temporada y viajaran por toda Europa, donde protagonizaron sonados escándalos.

En sus últimos poemas Esenin muestra su desencanto por el resultado de la revolución. Falleció trágicamente en Leningrado (actual San Petersburgo), donde, según algunas versiones, se suicidó, y, según otras, fue asesinado.

Essenine, le dernier poète qui comprit l'âme slave

Sergueï Alexandrovitch Essénine, poète russe (1895-1925), a chanté les louanges du petit peuple russe, de ses paysages, de sa langue particulière, de son âme populaire.

Né à Konstantinovo, au sein d'une famille paysanne, il développa très jeune un don pour la poésie. Étudiant à Moscou, il participa activement à l'atmosphère révolutionnaire de son époque et accueillit avec enthousiasme le triomphe de la révolution soviétique. Dès la première édition de ses poésies, il rencontra un très vif succès auprès de ses contemporains, et noua des liens avec l'élite de la poésie contemporaine russe en devenant membre du groupe des "imaginistes".

Il épousa l'artiste et danseuse américaine Isadora Duncan avec lequel il entretint, dès le départ, une relation tourmentée, quelque peu compliquée par le fait qu'elle ne parlait pas le russe, et que lui ne connaissait pas l'anglais. La barrière des langues ne les empêcha pas pourtant de vivre ensemble durant une longue période et de voyager à travers toute l'Europe, où leurs scandales eurent des échos retentissants.

Dans ses derniers poèmes, Essénine ne cache pas son désenchantement quant aux résultats de la révolution. Il mourut tragiquement à Léningrad (aujourd'hui rebaptisée Saint-Pétersbourg). Certaines sources affirment qu'il se serait suicidé, tandis que d'autres prétendent qu'il aurait été assassiné.

Yesenin, the last poet to understand the Slavic soul

Yesenin*, Sergei Alexandrovich, Russian poet (1895-1925), sang to the ordinary Russian people, to their landscapes, to their unique language, to their popular soul.

He was born in Konstantinovo, in the bosom of a peasant family. His gift for poetry stood out from an early age. He studied in Moscow and participated actively in the revolutionary atmosphere of his time. When the Soviet revolution triumphed, he welcomed it enthusiastically. After the first publication of his poems, he was very successful among his peers, he mixed with the elite of Russian contemporary poetry and was a member of the group of "imaginists".

He married the American artist and dancer Isadora Duncan. The relationship was a stormy one right from the start: she spoke no Russian, nor he any English. But that did not prevent them from living together for a long period and travelling all over Europe where their scandals could be easily heard.

In his last poems Yesenin expresses his disillusionment with the results of the Revolution; he died tragically in Leningrad (today's St. Petersburg). According to some versions, he committed suicide, while others affirm he was murdered.

---

* alternative spelling: Esenin